

1999KO OTSAILAREN 4AN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Lau

HILABETEA: Otsaila

URTEA: Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak eta berrogeita hamabost.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Lau (4)

MAHAIBURUA: Jon Jauregi Bereziartua

BILDUAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta

Jose Ignacio Insausti Mujika

ETORRIGABEA: Jose Luis Elorza Mujika

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

1999ko urtarrilaren 20ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

2- LIZENTZIAK

a- 13 HAn etxebizitzak egiteko eraikitzen baimena.

Kontuan izanik:

1- 1998ko abenduaren 21eko datarekin Agustin Irazustabarrena jaunak, Pergolas de Beasain S.M.ren izenean eta bere ordezkari legez, Beasaingo 13. HAKo 1. EUko 2. eta 3. lursailetan eraikitzeko hirigintza-lizentzia eskatu zuen, horretarako oinarritzko proiektua aurkeztuz.

2- Arkitektoak 1999ko urtarrilaren 25ean emandako txostena.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik**. 13. HAKo 1. EUko 2. eta 3. lursailetan eraikitzeko hirigintza-baimena ematea, proiektatutako eraikinek 1998ko uztailaren 28ko Diputatu Kontseiluak behin betiko onartutako Barne Berrikuntzako Egitasmo Berezian (BBEB) jasotako lerrokapen eta profilen baldintzak betetzen dituztelako.

2. LURSAILA	Proiektua	BBEB
Lerrokapenak	11,35 x35,88 m.	11,4 (geh. sak.)
Profila	BO+IV+atikoa	BO+IV+atikoa
Eraikigarritasuna: etxebizit.	2106,28 m ²	2.050 m ²
merkataritza-behebarr.	319,43 m ²	
atariak	87,45 m ²	
	<hr/>	
	406,88	430 m ²
 Etxebizitza-kopurua:	 20	 20

3. LURSAILA

Lerrokapenak	11,4x89,3	11,4x89,3
Profila	BO+IV+atikoa	BO+IV+atikoa
Eraikigarritasuna: etxebiz.	5.240m ²	5.100 m ²
merkataritza-beheb.	622m ²	
atariak	288m ²	
	<hr/>	
	910 m ²	865 m ²
 Etxebizitza-kopurua:	 50	 50

Aipatutako datuetan jasota dago, gainerako 4. eta 5. lursailen garapena baldintzatzen duen BBEBen aurreikusitako eraikigarritasun-hazkuntza. 5. Lursaila Udalaren jabegokoa dela kontuan hartuta, 2. eta 3. lursail hauetan baimendutako gehiegizkoek 4. Lursailari eraikigarritasuna kentzen diotela hartu behar da kontuan, izan ere, ondoren adierazten den eran geldituko baita:

$$\text{Etxebizitzak: } 1470-56,28-140 = 1273,72 \text{ m}^2$$

$$\text{Aretoak: } 120+23,12-45 = 98,12 \text{ m}^2$$

3. Lursailak beheko oineko egitura-konponbidea doitu egin beharko du eraikinean aurreikusita dagoen jendearen pasagune publikoa erasaten duten pilareak lerrotatuz eta beren akabera nahiz mugakide diren behebarruen trenkada bidezko ixturak diseinatuz, beti ere, pasagune publiko horretarako irispidea eta bertatik igarotzea hobetzearen.

Horren ondorioz, hirigintza-lizentzia, eraikuntza-obren hasiera, aurreko lerrokadan aipatutako arloen zuzenketari eta horiek egiteko beharrezkoak diren

dokumentu teknikoak (Egikaritze-proiektua, Segurtasun- eta Osasun-proiektua eta Kalitate-kontrolak) aurkezteari baldintzatuta ematen da.

Bigarren.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea.”

b- 5 Sektorean etxebizitzak egiteko eraikitze baimena

Kontuan izanik:

1- 1998ko urriaren 28ko datarekin Juan Jose Jaunarena jaunak, Brues S.A.ren ordez, 5 Sektorean 60 etxebizitza, baxu eta garajeak eraikitze hiritza lizentzia eskatu zuen, horretarako oinarritzko proiektua aurkeztuz.

2- 1999ko otsailaren 2ko datarekin, Juan Jose Jaunarena jaunak, Brues S.A.ren ordez idatzi berri bat aurkeztu zuen ondoren aipatzen diren lursailentzat hirigintza lizentzia eskatuz: LE-1 (8 etxebizitza eta garajeak), LE-2 (21 etxebizitza, garajeak eta merkatal aretoak), LE-3 (8 etxebizitza, garajeak eta areto-soziala) y LE-5 (8 etxebizitza eta garajeak) eta onartuz baimena ematea, Lurralde, Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Gipuzkoako Ordezkaritzak ematen duen babes ofizialeko behin-behineko kalifikazioa eskatzaileak aurkeztuko duenaren baitan izang dela.

3- Arkitektoak 1999ko urtarrilaren 26an eta 1999ko otsailaren 2an eta hirigintza batzordeak emandako aldeko txostenak.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.-** 1. LE lursailari (8 etxebizitza eta garajeak), 2. LE lursailari (21 etxebizitza, garajeak eta merkataritza-aretoak), 3. LE lursailari (8 etxebizitza eta gizarte-aretoa) eta 5. LE lursailari (8 etxebizitza eta garajeak), hirigintza-lizentziak ematea, izan ere, aurkeztutako oinarritzko proiektu teknikoak, eskatutako hirigintza-baldintza guztiak betetzen baititu (lerrokapenak, aprobetxamendua, profilak eta ordenantzak).

Hala ere ordea, maila horretan kontuan hartua izatetik, Egitasmo Partzialean aurreikusitako gizarte-ekipamendurako aretoaren eraikuntza eta funtzionaltasunarekiko ebazpen-gabezia salbuetsi egiten da eta hori behar bezala ebatzi beharko, gune publikotik (hala behar bada 3. LE lursailari esleitutako lurzoru pribatu ez-eraikigarriaren zatia kenduz) eta blokeko eskaileren gunetik ere sarbidea duela.

Aipatutako lursailetan eraiki behar diren etxebizitzak, 1998ko abenduaren 1eko Diputatu Kontseiluak behin betiko onetsitako Egitasmo Partzialak ezarrita

babes ofizialeko etxebizitza-arauekoak direnez, eraiki aurretik, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ordezkaritzak emandako Babes Ofizialeko etxebizitzentzako Behin-behineko Kalifikazioa kreditatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da Udaletxean eta halaber, berei dagozkien Egikaritze Proiektua, Segurtasun eta Osasun Proiektua nahiz Kalitate Proiektua ere.

Bigarren.- 4. lursailean eraikitzekoa den eragin libreko 15 etxebizitzentzako hirigintza-lizentzia ematea, baina ondorengo atalak kontuan hartuta:

- Proposatutako eraikuntza, Egitasmo Partzialak izendatutako erabilpen-eta eraikuntza-zehaztasunei doitzen zaie.

- 4. lursailak (4. L), 15 etxebizitzen eraikuntza dakar honako profilarekin: SE+BO+1.O+MBO.

- Lursailak, izendatuta daukan aprobetxamendu osoaren zenbatekoa bete egiten du, izan ere, orotara eraikitzeko proposatzen duen gehieneko azalera, aurreikusitakoa baino txikiagoa baita. $2.063 \text{ m}^2 < 2.625 \text{ m}^2$ baino etxebizitza-erabilpenerako eta $1.175 \text{ m}^2 < 1.695 \text{ m}^2$ baino garajeetarako.

Oinez-oin hartutako azalera ez datoz bat Egitasmoan definitutakoekin (diferentzia txiki horiek doitu eta zuritu egin beharko dira egikaritze-proiektuan).

- Eraikinaren lerrokapenetan ikusten denez, erdisoto oinak gainditu egiten du Egitasmoan aurreikusia (18,08) eta 18,3ra iristen da. Baldintza hori zuzendu egin beharko da egikaritze-proiektuan.

- Egikaritze-aldian (proiektua eta azterlanak egitean), eraginaldi honetako gainerakoetatik aparte bideratu beharko da, hots, eragin libreko 15 etxebizitzen eraikuntza baino lehen, Egikaritze Proiektua, Segurtasun eta Osasun Proiektua nahiz Kalitate Proiektua aurkeztu beharko dira Udaletxean.

Hirugarren.- Etxebizitzak lehen aldiz okupatzeko lizentzia, hirigintza-lanak beren 3. ekinaldiari dagozkionean egiteari baldintzatuta gelditzen da.

Laugarren.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea.”

3- EUSKERA BATZORDEKO PROPOSAMENA

Euskera batzordeko proposamenaren berri eman da:

“Apirilaren 15eko 86/1997 dekretua eta 96-05-30eko udal-akordioa oinarri hartuta, euskara-batzordeak 99-01-25eko bileran hitz egindakoaren arabera ondokoa proposatzen dio Gobernu Batzordeari:

Udalak zerga-bilketa betearazteko azpikontrataturako enpresari kontratuaren bidez ondoko baldintzak eskatzea:

- 1.- Udalarekin Harremanak Euskaraz zerrendako herritarrei idazki guztiak euskaraz bakarrik bidaltzea.
- 2.- Enpresak bere gain hartzea bere zereginetarako behar duen itzulpen-lana eta Udalaren bitartez egitekotan horren kostuarena.
- 3.- Euskaraz idatzitakoa modu argi eta ulergarrian idatzita dagoela bermatzea eta horretarako Udalak bere Euskara-zerbitzuaren aholkularitza eskaintzea.

Apirilaren 15eko 86/1997 dekretua. Euskal Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

18. d) atala: Kontratazio arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen.

96-05-30eko udal-akordioa. 4.5. Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituztela adierazi duten herritarren eta dendarien zerrenda osatutakoan, adierazitako nahi eta eskubide hori betetzea, alegia, aipatu herritar eta dendariei Udaletik bidaltzen zaizkien idazki guztiak euskaraz bidaltzea bere osotasunean eta ahozkoan ere arau bera bete eta errespetatzea.”

Gaia eztabaidatu ondoren aho batez onartu da proposamena.

4- HITZARMENAK

a- Arrano Kultur Elkarte

Arrano Kultur elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- Sendabelarren erakusketa	40.000 pezeta
- Mariren jaitsiera	170.000 pezeta
- Euskal Jai Eguna	1.296.000 pezeta
- Pintura lehiaketa	399.000 pezeta
GUZTIRA.....	1.905.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 1999ko aurrekontua onartzearen baitan.

b- Aizkorri Mendizale Elkartea

Aizkorri Mendizale elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren berri eman ondoren 718.000 pezetako kostua aho batez onartu da, 1999ko aurrekontua onartzearen baitan.

5- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko bederatzia eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.